


PENTSATU, JOSI ETA KOADERNATU EGITEN DENA

Nork ematen du: arteko TALLER (Eluska Kortajarena eta Ainara Landaberea)

Datak eta ordutegiak: hilaren 7a, osteguna; hilaren 11, astelehena; eta apirilaren 14a, osteguna.
18:00etatik 20:30era



¿Zer da artista-liburua?


Artean elementu nagusi bezala azaleratu da artista-liburua. Ez da bakarrik testu bat, artista batek ohiko inprimaketa-teknika batez dekoratutako orrietan inprimatutakoa. Artista batek edo gehiagok guztiz sortutako objektu bat da, ez duena zertan konbentzioen mugen arabera izan. Izan daiteke halakoa, edo muzin egin diezaioke mugetako bakoitzari. Baliteke testurik ez izatea, ezta paperezko orririk, aurrealderik edo liburuarekin lotu ohi dugun beste berezkitasunik ere.

Tailerra


Tailer honetan, oinarrizko koadernaketa-nozioak emango ditugu, partaideak beren artista-liburuak sortzen hasi ahal izateko. Artista-liburuak sormen-aukera aberatsak eskaintzen ditu kontzeptu eta edukietan, adierazpideetan, material eta formetan, lanketa-tekniketan... Partaide bakoitzak bere lanak sortuko ditu, bere gustu artistikoen arabera.

Koadernatzeko hiru oinarritzko era landuko ditugu:


KOADERNO BAKARREKO LIBURUEN KOADERNAKETA



AKORDEOI-ITXURAKO KOADERNAKETA



SOKARIK GABEKO KOADERNAKETA



Tailer laburra denez eta denbora askorik ez dugunez, ideia da hiru koadernaketa-motak biltzen dituen artista-liburua sortzea.

Saio bakoitzean, egunez egun egindako lana eramango dute partaideek, etxean haren gainean lanean jarraitzeko. Apirilaren 23an, beren artista-liburua ikusgai jartzeko aukera izango dute.

